Izen- abizenak:_____ Data: _____

URA, IKUS DAITEKEEN LAGUN GARDENA

URA NOLA IRISTEN DEN ETXEETARA

Garai batean, jendeak iturrietara joan behar izaten zuen edateko edo garbiketarako ur bila. Hala ere, duela urte asko, ura etxeetara eramateko sistemak asmatu zituzten erromatarrek.

Gaur egun, jendeak erabiltzen duen ur gehiena ibai, aintzira edo putzuetatik dator. Lehendabizi ura ponpatu egiten da, ur-biltegietaraino. Handik ura tratatzeko plantetara eramaten da, eta han, osasunarentzat kaltegarriak diren substantziak kendu eta kloroa botatzen diote, germenak akabatzeko. Ondoren, tratatutako ura urtegietara garraiatzen da eta haietatik ura hiri edo herrietara banatzen da, lur azpian dauden hodien bidez. Ur hori arazorik gabe kontsumi dezakegu etxean.

Ikusi eta behatu arretaz:

https://www.youtube.com/watch?v=k4-HRQ27dsw

- **Bideoan agertzen diren Eugi eta Arteta urtegiek herriaren izena hartzen dute. Horietatik bat aukeratu eta bilatu ezazue hiru datu interesgarri.**

JARDUERA 6. URAREN IBILBIDEA.

"Ura nola iristen den etxeetara" testua irakurrita eta bideoa ikusi ondoren, **osatu** hurrengo **eskema**. Eskema honen bidez, urak egiten duen ibilbidea behatuko dugu. Nola iristen da ura gure etxeetaraino? Eta nola bueltatzen da ura Arga ibaira?

Bete ezazue **eskema**, hurrengo **laukiak arrastatuz** dagokien lekuetara.

(Hasiera lauki beltza da)

Hondakin- ur araztegira bidaltzen da ura, Iruñerriko kolektore sarearen bitartez

Ehunka kilometroko hodien bidez

Eguillor, Tiebas eta Urtasun araztegietara eraman ura

Ur- biltegietan bildu

Eugi, Itoiz eta Artetako urtegietako ura

Etxe, lantegi, eskola, parke, lorategi … herri eta hirietara heltzen da ura guk kontsumitzeko

Arga ibaira bueltatzen da ura



JARDUERA 7. Aurretik irakurritakoa kontuan hartuz eta bideoa ikusi ondoren, *pentsatu eta saiatu hurrengo galderei erantzuten*. Ez ahaztu erantzunak osatzen eta esaldiak ahalik eta hobekien idazten.

- Kontsumitzen dugun ura zein hiru hornidura- iturrietatik dator Iruñerrira?

- Egunean zehar, zein ekintzen bidez zikintzen dugu ura?

- Eskolako, etxeko … hondakin- urak nola eta nondik irteten dira Arga ibaira? Azaldu prozesua.

- Nola iristen da ura ibaira?

JARDUERA 8. URA ARAZTEA

Aurreko bideo **arretaz** ikusi baduzu, erantzun hurrengo galdera hauei:

a.- Zer esan nahi du *ura arazteak*?

b.- Araztegian zein *hondakin/substantzia* kentzen zaizkio urari garbitzeko? **Aukeratu erantzun egokiak, bideoan aipatzen direnak.**

☐ Xaboia ☐ Olioa ☐ Gatza ☐ Koipeak

☐ Harea ☐ Kloroa ☐ Janari- hondarrak

c.- Zer **abantaila** ditu ura arazteak, hau da, ura garbitzeak? **Aukeratu egia (E) ala gezurra (G) diren.**

☐ Urak dituen hondakinak desagertu edo ezabatu egiten dira ura araztean, ibaien osasuna babesteko.

☐ Ura araztuko ez balitz, ibaietako fauna eta flora kasik desagertuko ziren.

☐ Ura garbitzean gure ekosistemako kalitatea zaintzen dugu.

☐ Ur- zikinak ibaietara isurtzeak, gaixotzeko arriskua gutxitzen du.

d.- Oraingoan, lagunok, zuek frogatuko duzue zer den "ura araztea" **esperimentu** txiki batekin.

MATERIALAK

- Ura
- Artilezko korda oso lodia, oihal zati bat edota sukaldeko baieta.
- 2 ontzi
- Kartoizko kutxa bat (20 cm-ko altuera duena)

https://youtu.be/p1Elfz6ewtM

Esperimentua frogatu duzuenez, behatuko zenuketen zer gertatu den ordubete edo gehiago pasatu ondoren. Idatzi zuen emaitza zein izan den. **Zer gertatu da ur zikinarekin?**

URAREN ERABILERA OKERRA ETA KUTSADURA

Batzuetan, **gizakiok kalte** egiten diogu urari eta **kutsatu egiten** dugu:

Soroetan botatzen diren **pestizidak** eta **sustantzia kimikoekin.**

Industriek sortutako **hondakinekin**.

Hiri eta **herritako estolderietako zikinkeriekin.**

Itsasoetara isuritako **petrolioa** eta **sustantzia kaltegarriak**.

Etxeetan sortutako hondakinekin: **xaboiak, garbigailuak, olioa, …**

Aipatutako guzti horietan, **sustantzia kaltegarriak uretan amaitzen** dute, hau erabat kutsatuz.

JARDUERA 9. URAREN KUTSADURA.

Osatu **eskema** aurreko datuak erabiliz: